

# PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

BIRPI enpresa Easo Politeknikoko Produkzioaren Programazioko bost ikasle gara non CNC makinek botatzen dituzten txirbila berrerabiliz gimnasioko pisuak egingo ditugun.

Helburua, metaleko sektorean dauden enpresen makinak sortzen dituzten hondakin horiek ahalik eta gehien aprobetxatzea da. Horretarako, txirbil bilketa eta fundizio prozesu batetik birziklatutako metal solidoak sortuko ditugu molde batzuen bitartez. Metal solido hori gure CNC-ko makinetan sartu eta programa baten bitartez forma desberdinetako gimnasioko pisuak mekanizatuko ditugu.